


Merkatuaren segmentazioa

Gure aplikazioa nagusiki bideratuta dago 12-18 urte bitarteko ikasleentzat (bigarren hezkuntzakoak), unibertsitatekoek ere erabili ahal izango duten arren. Horrez gain, **Studify** tresna erabilgarria izan daiteke edozein motatako ikasleerentzat, adina eta ikasketa mota kontuan hartu gabe. Gainera, hasieran soilik Euskadi mailan gauzatuko dugu gure jarduera; orduan, euskal ikasleek erabili ahal izango dute oraindik. Bestalde, **Studify** laguntza beharra eta antolaketa-arazoak dituzten ikasleei zuzenduta dago, beren trebetasunak eta emailtza akademikoak hobetu nahi dituzten horientzat.



Euskadiko ikasle kopurua mailaren arabera



Iturria: Guk gauzatutako grafikoa, EUSTAT-eko datuetan oinarrituz

Bigarren Hezkuntzako ikasleak (gure bezero potentzialak): 300.000 inguru

Studify aplikazioa erabili ahal duten bezeroak honela banatuko genituzke:

- DBHko ikasleak: 140.000 inguru
- Batxilergoko ikasleak: 60.000 inguru
- Unibertsitateko ikasleak: 50.000 inguru
- Lanbide Heziketako ikasleak: 49.000 inguru